

## Liburutegia

PILAR IPARRAGIRRE



## Merkatua eta globalizazioa

José Luis Sampedro

ELHUYAR

94 orrialde

12 euro

## Globalizazioaz bi tesi kontrajarri

José Luis Sampedro katedradunak egitura ekonomikoak irakasgai ditu bere ohiko jardunean. Oraingoa, 2002ko otsailan munduko etorkizunari buruzko planen gainean Ameriketan gertatu ziren bi Foro kontrajarriren funtsak azaldu ditu Elhuyarrek kaleratutako liburu honetan. Santiago Sequeirosek eginiko marrazkiekin plazaratu du Sampedrok *Merkatua eta globalizazioa*. New Yorken egindako Foro Ekonomikoan gai finantzieroetan arreta jarritz defendatu ziren globalizazioaren aldeko tesiei, munduko gizarte arazo gori-gorienak eztabaidatuz Porto Alegren (Brasil) egin zen Foro Sozialean agertu ziren

tesien funtsa kontrajartzen die. Helburua: globalizazioa deitzen den auziaren aurrean irakurleak zer erabaki jakiteko nahikoa mami izan dezala. |



## Hezkuntza Euskal Herrian aztergai

Ane Larrinaga, Mila Amurrio (bilatzaileak)

UTRIUSQUE VASCONIAE

238 orrialde / 23,50 euro

## Euskal Herriko hezkuntzari buruzko teoriaren bilduma

Ane Larrinagak eta Mila Amurriok Utriusque Vasconiae argitaletxearen bidez kaleratu duten *Hezkuntza Euskal Herrian aztergai* izenburuko liburuan hainbat alor jorratu dituzte: Curriculumeko eduki soziokulturalak 1900 eta 2006 urteen artean, euskal eskolan balioekin irakasleen ikuspuntutik lan egitea zer den, teknologia multimediekin hezkuntzaren arloan duten eragina, unibertsitate esparrua gatazka sinbolikoen agertoki gisa aztertzerakoan akademiko euskaldunen pertzepzioa nolakoa den, eta euskal nazionalismoa eta hezkuntza zibikoaren uztartzea dira, besteak beste aztertutako gaiak. Gai unibertsalak izan arren, gurean daukaten alderdi partikularra ere landu dute lan berri honetan. |

## Mendibururen artea poema egina

Remigio Mendibururen jaiotzatik 75 urte bete zirenean kaleratu zuen Bermingham argitaletxeak, Hondarribiko Udalaren enkarguz, eskultorearen lana eta bizitzaren aurrean Carlos Aurtenetxek osatutako poema bilduma, euskaraz eta gaztelaniaz. Gaztelaniazkoak *A canto ciego* du izenburu; Pello Zabalak itzulitako euskarazko bertsoak berriz, *Molorrিকা itsu*. Biek ala biek Remigio Mendiburuk 1987an eginiko collage orijinalak jasotzen dituzte. Eskultorearen omenez eta haren memoria gordetzeko helburuarekin osatutako liburuak dira. Haien edizioa Donostiako Oficina de Ideas bulegoko Poesiaren Lagunek zaindu dute. Carlos Aurtenetxek eskaintako poemaren artean *Eskeu bandituen erromantzea*, *Gorputz gautiar*, *Han datza maitasuna*, *Aldaonen etortzea* eta *Gorputzen legea* daude. |



## Molorrিকা itsu (Remigio Mendiburu)


Carlos Aurtenetxe

BERMINGHAM

102 orrialde

## Bihotz oneko astakiloa

Bidarian sortutako mutil-jator baina alproja samarraren bizitzaren gainean idatzi du Iñaki Zubeldiak *Josu Azalaren abenturak*. Haurtzarotik hasi eta Arantzazuko komentuan pasa zituen urteetan gertaturiko pasadizoz osatutako liburu hau hamar urte inguru dituzten neska-mutikoei begira egina da. Batzuetan astakiloa bada ere, bihotz onekoa eta lagunen laguna izaten ondotox dakien mutikoa dugu Josu Azala. Gertatzen zaiona da gorputzez sendoa dela, eta hark ez duela ez nekerik eta ez beldurrik sekula sentitzen, eta jakina, batzuetan haren inguruan dabiltzanek sufritzen dituztela bere astakerien eta kirtenkerien ondorioak. Izan ere, Josu Azalaren ondoan abentura eguneroko ogia da. Jakin nahi al duzue, adibidez, burugorria izateagatik nola irabazi zituen 500 pezeta? Bada, liburua irakurtzea besterik ez duzue. |




## Josu Azalaren abenturak

Iñaki Zubeldia

IBAIZABAL

190 orrialde

9,80 euro



Egunero hasten delako

Ramon Saizarbitoria

EREIN

156 orrialde

7 euro

## Saizarbitoriaren lehen obra poltsiko edizioan

Hogeita hiru urte zituen Ramon Saizarbitoriak *Egunero hasten delako*, aurreneko nobela idatzi zuenean. Emakume-gizonen arteko harreman sexualen askatasunaren aldeko, eta, bereziki, emakumearen aborto eskubidearen aldeko aldarria da. Makina bat argitalpen ezagutu ditu liburuak, orain Erein argitaletxeak poltsiko-formatuan kaleratu duen arte. Nobelaren argumentuagatik eta liburuaren azalean agertzen den Alberto Corazonen irudiagatik, garaiko adituek gogorak esan zizkieten Saizarbitoriari. Gipuzkoako Foru Aldundiko Bibliotekako zuzendaria zen Jose Artetxek

bota ziona, adibidez: “Barkamena eskatu beharko diozu Euskal Herriari belauniko”.

## Bera nor den jakin nahi duen mutikoaren ezuste polita

Bost urtetik aurrerakoentzako kontakizun honek Toto du protagonista. Nor naiz ni? Horixe da mutikoak amari, arrebari, eta aurrean harrapatzen duen guztiari egiten dion galdera. Poliki-poliki, bere buruaren garrantziaz ohartzen hasten da. Izan ere, besteek esaten diotenaren arabera, bera semea-haurra-neba-lehengusua-biloba-ikaslea eta laguna da. Baita txirindularia ere. Eta hori gutxi balitz, polizia batek esan dioenez, oinezkoa ere bada; eta autobus gidariak azalutakoaren arabera, bidaiaria ere bai.

Nor naiz ni?

Gianni Rodari

IBAIZABAL

36 orrialde / 7,95 euro



JUAN LUIS ZABALA

## «Kritika bat ere badago taberna zuloko kirol kritikaren inguruan»

Nondik dator *Bideak, aldapak eta bihurguneak*?

Narrazio honen oinarrian txikitako oroitzen bat dago. Gure anaia zaharrena, nik hamar bat urte nituenerako bizikletan ibiltzen zen. Garai hartan –70eko hamarkadan– ez zen oso ohikoa bizikletan zaletasun hutsez ibiltzea; lanera joateko, bai, baina ez kirol zaletasun hutsagatik. Eta behin, bizikleta gainean hartu ninduen, eta ni barra gainean eserita ninderamala, aurrera egin zuen.

Baina autobiografiatik gutxi du nobela honek, ez?

Aipatu dudana baino ez. Narrazio honetan etxeko txikia emakumea da, eta bai anaia zaharra eta bai bera, txirindulariak dira. Anaia zaharra profesionala, Tourrean-eta ibiltzen dena, eta gaztea oraindik kategoria txikitetan ibiltzen den neska, baina zaletasun handia duena. Emakumea, eta horrek nolabait zailtasun erantsi bat ekartzen dio txirindulari izateari. Eta beno, neskato horren zalantzak eta kezkek dira narrazioaren motorra. Bestetik, xehetasun bitxi moduan, esan dezaket neska horren anaiak, bere ibilbideari begiratu, Iban Mayok iaz egin zituenak ekartzen dituela gogora. Pertsonaia honek ez du harekin zerikusirik, baina horrelako txirindularien gainean beti sortzen den esamesen mundu hori azaltzea interesgarri iruditu zitzaidan. Omenaldi txiki bat ere bada txirindulari guztiari, eta kritika bat ere badago taberna zuloko kirol kritikaren inguruan.

Zergatik aukeratu duzu neska protagonista gisa?

Gizonen txirindularitza garrantzitsua iruditzen bazait, emakumezkoena askoz meritu handiagokoa iruditzen zaidalako. Eta oso garrantzi gutxi ematen zaio komunikabideetan.



DANI BLANCO

## Bizikletak, nerabeak eta punk rocka

Txikitako oroitzen oso maite bat du oinarrian Juan Luis Zabalak, emakumezko zein

gizonezko txirindularien omenez eta irakurle gazteei begira idatzi duen *Bideak, aldapak eta bihurguneak* izenburuko nobelak. Kontalaria, neska gazte bat da, bizikleta zale amorratua, bere anaia zaharra bezala. Neba ordea, txirindulari profesionala da, itzuli handietan parte hartzen duena, neska oraindik kategoria txikitetan ibiltzen da. Baina zaletasun handia du, eta afizioari eutsi nahiko lioke, horrek dakarren zailtasuna gorabehera –denbora asko eskatzen duelako eta ahalegin handiak egin behar direlako–. Entrenamendutako giroa asko estimatzen du neskak, eta txirindularitza oso gustuko du, baina arazo sentimentalak ere baditu: azken batean nerabe baten

egileari galdezka



Bideak, aldapak eta bihurguneak  
Juan Luis Zabala

ELKAR

64 orrialde

6,50 euro

kontuak. Bilatzen haste-ko garaian dago, eta hor, zalantza asko sortzen zaizkio. Izan ere, beste giro batzuk ere maite ditu. Adibidez, punk taldeen kontzertuetako giroa eta gazte errebeldeena ez du asko ezagutzen du, oso ezberdina delako txirindularitza munduarekin alderatuta. Eta hor dabil, bilaketan, nobelako egunkarian azaltzen duen bezala. ■